

LANA, FAMILIA ETA BIZITZA PERTSONALA UZTARTZEKO II ITUN MANKOMUNATUA 2009 - 2010



BORTZIRIAK

Emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasuna da XXI. mendeko erronka nagusia. Berdintasun formala gure ordenamendu juridikoan jasota badago ere, herritarren arteko berdintasun erreala hitz egitea eragozten duten gizarte jarduerak aldatzea eskatzen duten diskriminazio modu ugari dago oraindik ere. Gizartearen garapena eta kohesioa lortzeko gakoetako bat berdintasun erreala erdiestea da, inolako zalantzarik gabe. Berdintasun horretako gizaritari (bere osoan) dakarkio onura, bai emakumeei, baita gizonei ere.

Instituzioek eta ekonomi eta gizarte eragileek ekintzak sustatzen dituzte emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasun egoerak gainditzeko saiatze aldera. Egiturazko aldaketak bultzatzen dituzten epe luzerako estrategiak, eta pertsonen eguneroko premiei erantzun eta bidezotasunean oinarrituta ez dauden harremanetatik sortzen diren zailtasunei aurre egin asmo dieten epe ertainerako eta motzerako estrategiak daude. Ekonomi bizitza, eta, zehazki, lan arloa, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko oinarrizko esparruetako bat da. Gure gizarteetan, familiako eta etxeko erantzukizunak emakumeen eta gizonen artean modu desberdinean banatzea eragozpenik handienetako bat da emakumeak lan arloan erabat murgiltzeko, merkatu horretan irauteko eta gora egin ahal izateko, eta, aldi berean, lana sexuaren arabera banatzea, eta bizitza publikoan eta pribatuan emakumeak eta gizonak banantzea dakar. Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea arazo konplexua eta gatazkatsua da herritarren zati batentzat, baita, ordea, gizonezkoentzat, familientzat, udalerrientzat, enpresentzat, lan merkatuentzat eta, oro har, gizartearentzat ere.

Hori del eta, gure iritziz nahitaezkoa da emakumeei eta gizonei beren lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea erraztea, mendekotasuna duten pertsonen arretaren arloan familiei sostengua emanen dieten neurri eta zerbitzu gehiago eta hobeak emanez, lana antolatzeko modu berriak bultzatuz, giza baliabideak bestela kudeatuz, eta administrazioetan eta enpresetan lan baldintza berriak ezarriz. Baina, batez ere, gure iritziz, pentsamoldeak aldatu behar dira, etxeko eta familiako erantzukizunak eta eginkizunak orekan banatze aldera, denboraren banaketa egokia egin beharra dago.

II PACTO LOCAL POR LA CONCILIACIÓN DE BORTZIRIAK

Uztartzea bereziki eta berariaz emakumeei eragiten dien gatazka baten emaitza dela pentsatzea guztiok gainditu beharreko ideia da, oso garrantzitsua. Zainketaren etikaren garapen bultzatu nahi dugu, gure iritziz horixe baita aukera berdintasuna sustatzeko gakoetako bat, eta bereziki, uztartzea erraztuko duen tresna. Mendekotasuna duten pertsonen zainketa etxean egitea, eta arreta familian eta komunitatean egitea proposatzen dugu. Emakumeek eta gizonak berdintasunean egin beharreko eginkizuna da, horrek herritarren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzea ekarriko baitu.

Udalerrria, herritarrarekiko hurbiltasuna dela eta, marko egokia da uztartzeari begirako baliabideak eta zerbitzuak sustatzeko eta kudeatzeko, baita zaintzaren etika bultzatzeko ere. Udalerritik bertatik uztartzea errazteak uztartzeari begirako baliabideak era zerbitzuak ezartzeko prozesuaren fase guztietan herritarrak inplikatzeko eta parte hartzea eskatzen du, bai diseinuan eta antolaketan, baita kudeaketan eta erabileran ere. Orobat, enpresak eta beste toki erakundeak zaintzaren etika bultzatzeko duten lan modu berrien garapenean inplikatzeko eskatzen du. Aurrekoez, gain herritarrek eztabaida prozesu batean eta jokabideak eta jarrerak zalantzan paratuko dituen prozesu batean parte hartzea eskatzen du, uztartzea bideratzearen, zainketaren banaketan orekaz jokatzera bideratuko den prozesuan.

Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen esparruan lan egiten duten entitateen eta eragileen arteko ITUN MANKOMUNATUA proposatzen dugu, berau izanen delakoan Bortzirietako herritarrei familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzea bideragarria egitera zuzendutako aipatu helburu horien alda batera lan egiteko konpromiso aktibo eta parte hartzailea. Itun horren asmoa generoaren arteko harreman berriak finkatzea da, emakumeak eta gizonak bizitza pribatuak eta publikoan aktiboki parte hartzearen aldeko konpromisoan inplikatu.

2007 eta 2008 urte bitartean indarrean egondako Uztartzearen lehenengo tokiko itunaren ondoren, sinatu dugun entitateak berritzea erabaki dugu BORTZIRIETAKO UZTARTZEAREN II ITUN MANKOMUNATUA (2009-2010) gure eskualdean esku hartzen duten entitate eta eragileen artean konpromiso aktibo eta parte hartzailea mantenduz, eskualdeko herritarren bizi pertsonal, familiar eta profesionala uztartzearen aldeko helburuak lortzeko elkarrekin lan eginez.

Antzemandako premiak kontuan hartuta, Bortzirietako Itun Mankomunatuak honako helburu hauek landuko ditu:

- Bortzirietako herritarrak sentibilizatu etxeko eremuan gizon eta emakumeen arteko ardura berdintasunaren baloreen barneratzea seme-alaben hezkuntzan, zaintzaren baloreen eta etxeko lanen banatze egokian.
- Uztartze eta genero gaietan gizarte agenteen formazioa.
- Bikote gazteak hainbat gairen inguruan hezi, bertzeak bertze: haziera, haurren hezkuntza, zainketa eta erantzunkidetasuna.
- Gizonak aitatasunaren, zainketaren, mendekotasuna duten pertsonen heziketaren eta gizontasun eredu berrien inguruan hezi.
- Mendekotasuna duten pertsonen arreta egiteko laguntza zerbitzuak sortzea ahalbidetu, uztartzea, emakumeen enplegua eta zainketaz arduratzen diren pertsonen bizi kalitatea bermatze aldera.
- Udalek herrietan dituzten guneak egokitu, uztartzea bultzatzeko duen kultur eta kirol jarduerak bizi kalitatea bermatze aldera.
- Hirugarren adinekoei eta haurrei zuzendutako uztartze zerbitzuak gaur egundo premietara eta geroko aurreikuspenetara egokitu.

II PACTO LOCAL POR LA CONCILIACIÓN DE BORTZIRIAK

Honetarako 2009-2010 denbora tarte aurreikusten da Sentsibilizazioa, Formazioa, emakume eta gizonen arteko erantzukidetasuna Itunak, Garapena eta denbora kudeatzeko forma berrien finkatzea eta uztartzerako zerbitzuen sorrera, moldakuntza eta hobekuntza.

HONAKO ENTITAEOK:

Bortzirietako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitatea

Arantzako Udala

Berako Udala

Etxalarko Udala

Igantziako Udala

Lesakako Udala

Aralar Udaltaldea

Arantza Eskolako Guraso Elkarte

Bortzirietako Osasun Zentrua

CEDERNA-GARALUR

EA Udaltaldea

ELA Sindikatua

Ezker Abertzalea Udaltaldea

Igantzi Eskolako Guraso Elkarte

Igantziako Eskola I.P.

Irain Guraso Elkarte

Onin Udaltaldea

Ricardo Baroja Guraso Elkarte

Ricardo Baroja I.P.

Toki Ona Institutoko Guraso Elkarte

Uxue Emakume Taldea

ADOSTEN DUTE

LEHENA: Aitorpen orokorra

Bortzirietako Uztartzeko Toki Ituna (aurrerantzean "Ituna") eta horren lan Programa programazio etapa bakoitzean bete eta garatuko dela zainduko dute, eta halaber, Itunak irauten duen bitartean, haien bitartez hartutako konpromisoak errespetatuko dituzte.

BIGARRENA: Itunaren iraupena

Itunak bi urteko iraupena izanen du, eta iraunaldia amaitua berritu ahal izanen da entitate sinatzaileek hala erabakiz garo.

HIRUGARRENA: Lan programa

Itun honen helburu orokorra lortze aldera, eta uztartze arloan antzeman diren premiei erantzunez, sinatzaileen iritziz lehentasuna duten eta egokien diren jarduerak jasoko dituen lan programa landu eta onartuko da urtero, betiere entitate sinatzaileek jarduera horiek gauzatzeko izanen duten ahalmenaren baitan.

LAUGARRENA: Itunaren antolakuntza

Itunaren Komisia eta Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Itunaren garatzeaz arduratuko dira.

Itunaren Komisia sinatu duten entitateez osatuko da. Sei hilabete behin bilduko dira ohiko sesioan eta ezohikoa berriz, sinatutako bi entitate gutxienez eskatzen badute. Erabakiak adostuak hartuko dira. Hori lortu ezean bozkaketa burutuko da, erabakiak bozketan presente

II PACTO LOCAL POR LA CONCILIACIÓN DE BORTZIRIAK

egongo diren entitateen botoen gehiengo simple aintzat hartuz onartuko dira. Entitate bakoitzak ahots eta boto bakarra edukiko du.

Batzorde Instituzionalaren eginkizunak izanen dira:

- Itunaren buru eta ordezkari izatea.
- Itunean errebisatzea eta ematen diren aldaketak gainditzea
- Ituna zabaldu eta atxikitze berriak lortzea.
- Itunera atxikitze eskaerak biltzea.
- Itunarekiko atxikitze eta baja emateko eskakizunak onartu.
- Urteko lan Programa diseinatu, onartu eta martxan jartzea bermatzea.
- Urteko lan Programaren jarraipena eta esku hartzeen ebaluazioa bermatzea.

BOSGARRENA: Entitate sinatzaileen eginkizunak eta erantzukizunak

Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak bere gain hartuko ditu Itunaren koordinazioa, bereziki sinatu duten entitateen Batzordearen sesioetara konbokatzearena. Entitate sinatzaileen gainerako eginkizunak eta erantzukizunak urteko lan programaren jardueretara eta entitateek jarduera horietan izanen dute parte hartzera lotuko dira. Entitate sinatzaile bakoitza Itunaren zabalitzeaz arduratuko da, baita urteko lan Programaren jarduera bakoitzeko parte hartzaileen lortzeaz.

SEIGARRENA: Itunaren eta lan programaren jarraipena eta ebaluazioa.

Jarduerak antolatzen dituen entitate bakoitzak horren jarraipena egiteaz arduratuko da, bere exekuzioaren inguruko informazioa bilduz. Mankomunitatea informazioa errebisatzeaz arduratuko da. Batzordearen urteko bi bilerak bere eguneko ordenan urteko lan Programaren jardueren ebakuzioa eta jarraipena gehituko du.

ZAZPIGARRENA: Atxikipenak eta bajak

Eskualdeko edozein entitate edo gizarte eragileen atxiki daitezke Itun honetan, Itunaren oinarriekin eta helburuekin bat datorren eta entitate sinatzaileek hartutako erabakiak errespetatzeko eta erabaki horiek garatzen laguntzeko konpromisoa hartzen badu. Atxikitzea idatzik eskatuko zaio Itunaren Batzordeari entitate sinatzaileen bitartez. Baja emateko ere Itunaren Batzordeari jakinaraziko zaio, honek ohiko edota ezohiko bilera baten bitartez gaindituko du. Batzordeak ere edozein entitatearen baja proposatu dezake horretarako aitzakiarik balego.

1- ERANTZUNKIZUNARI BALOREEN ALDAKETARAKO BIDERATUTAKO SENTSIBILIZAZIO EKINTZAK

JARDUERA	1
EREMUA	Erantzunkidetasunari baloreen aldaketarako bideratutako sentsibilizazio ekintzak.
IZENBURUA	Berdintasunaren legea eta Uztartzearen Itunaren inguruko hitzaldi informatiboa
HELBURUA	Herritarrei orokorrean informatu Itunak eta Berdintasunaren Legeak bultzatzen dituzten baloreen inguruan: erantzunkidetasuna, aukera berdintasuna, uztartzea... eta hausnarketarako gune bat bermatu.
NORI ZUZENDUA	Herritarrak orokorrean.
EGUTEGIA	Apirileko hilabetea
KOORDINATZEN DUEN ENTITATEA	Bortzirietako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATEAK	Itunari atxikitutako entitateak

JARDUERA	2
EREMUA	Erantzunkidetasunari baloreen aldaketarako bideratutako sentsibilizazio ekintzak.
IZENBURUA	Uraren ixiltasuna
HELBURUA	Pelikula honen bitartez, emakumearen inguruan hausnarketa bultzatu.
NORI ZUZENDUA	Herritarrak orokorrean.
EGUTEGIA	Apirileko hilabetea
KOORDINATZEN DUEN ENTITATEA	Bortzirietako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATEAK	Itunari atxikitutako entitateak

ERANTZUNKIZUNARI BALOREEN ALDAKETARAKO BIDERATUTAKO SENTSIBILIZAZIO EKINTZAK

JARDUERA	3
EREMUA	Erantzunkidetasunari baloreen aldaketarako bideratutako sentsibilizazio ekintzak.
IZENBURUA HELBURUA	Ernaltzea prestatzeko ikastaroa Formazio ikastaro honetan generoaren ikuspuntua jorratu aukera berdintasuna, uztartzea, erantzunkidetasuna... baloreen bitartez.
NORI ZUZENDUA EGUTEGIA KOORDINATZEN DUEN ENTITATEA PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATEAK	Gurasoak Martxotik aitzin Bortzirietako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitatea. Bortzirietako Osasun Zentrua.

JARDUERA	4
EREMUA	Erantzunkidetasunari baloreen aldaketarako bideratutako sentsibilizazio ekintzak.
IZENBURUA HELBURUA	Erantzunkidetasunaren inguruko tailerra. Eskola eremuko herritarren hezkuntza etxeko arduren inguruan eta lanak modu berdinean hartzeko.
NORI ZUZENDUA EGUTEGIA KOORDINATZEN DUEN ENTITATEA PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATEAK	Bortzirietako eskola zentroko ikasleak. Iraila Bortzirietako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitatea. Igantziko I.P. Rikardo Baroja I.P

ERANTZUNKIZUNARI BALOREEN ALDAKETARAKO BIDERATUTAKO SENTSIBILIZAZIO EKINTZAK

JARDUERA	5
EREMUA	Erantzunkidetasunari baloreen aldaketarako bideratutako sentsibilizazio ekintzak.
IZENBURUA	Komunikabideetan erreportaia.
HELBURUA	Itunaren helburu eta baloreak azaldu.
NORI ZUZENDUA	Herritarrok orokorrean
EGUTEGIA	Martxoan
KOORDINATZEN DUEN ENTITATEA	Bortzirietako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATEAK	INAI Ttipi-ttapa Xaloa Itunari atxikitutako entitateak

2-FORMAZIO EKINTZAK

JARDUERA	6
EREMUA IZENBURUA HELBURUA	Formazio ekintzak Bortzirietako gizarte eragileei zuzendutako formazioa. Gizarte eragileak formatzeko uztartze eta genero gaietan, beraien entitateetan Itunaren puntu ezberdinak gara dezaten.
NORI ZUZENDUA EGUTEGIA KOORDINATZEN DUEN ENTITATEA	Itunari atxikitutako gizarte eragileak. Martxo Bortzirietako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATEAK	Itunari atxikitutako entitateak

3- ERANTZUNKIDETASUNARAKO EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO ITUNAK

JARDUERA	7
EREMUA	Erantzunkidetasunarako emakume eta gizonen arteko itunal.
IZENBURUA HELBURUA	Giza trebetasune eta gatazken kudeaketarako tailerra. Gatazkek argitzeko formazio tailerra, parte hartzen dutenei estrategia eta giza trebetasunak eskaintzeko asmoz, familia arduren banaketa eta etxeko erantzundiktasunarako.
NORI ZUZENDUA	Herritarrok orokorrean APYMA.
EGUTEGIA KOORDINATZEN DUEN ENTITATEA PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATEAK	Azaroa Bortzirietako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitatea. Arantza Eskolako Guraso Elkarte. Igantzi Eskolako Guraso Elkarte. Irain Guraso Elkarte. Rikardo Baroja Guraso Elkarte. Toki Ona Institutoko Guraso Elkarte.

4- DENBORAREN KUDEAKETA MODU BERRIEN GARAPEN ETA FINKATZEA.

JARDUERA		8
EREMUA	Denboraren kudeaketa modu berrien garapen eta finkatzea.	
IZENBURUA	Dirulaguntzak eskuratzeko baremoa, uztartze irizpideak aintzat hartu.	
HELBURUA	Dirulaguntzen banaketan irizpideetan, uztartze irizpideak barne hartzen dituzten elkarten programazioen saritzea.	
NORI ZUZENDUA EGUTEGIA KOORDINATZEN DUEN ENTITATEA	Entitateen kontzientzia hartzea, beraien jarduerak uztartze marko baten barne burutu dezaten. Entitateak/elkarteak (herritarrok orokorrean). 2009. urtean zehar Bortziritako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitatea.	
PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATEAK	Lesakako Udala	

JARDUERA		9
EREMUA	Denboraren kudeaketa modu berrien garapen eta finkatzea.	
IZENBURUA	Ardura familiarrak duten pertsona langileen ordutegi malgutasuna erregulatu.	
HELBURUA	Ordenatzetan barne hartu guraso langileen ordutegi malgutasuna lan eta familiako bizitzak uztartu ditzaten.	
NORI ZUZENDUA EGUTEGIA KOORDINATZEN DUEN ENTITATEA	Gurasoak 2009. urtean zehar. Bortziritako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitatea.	
PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATEAK	Bortziritako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitatea. Etxalarko Udala.	

5- BALIABIDE ETA UDAL ZERBITZUEN SORRERA, HERRITARREN BIZI PERTSONALA, PROFESIONALA ETA FAMILIARRA UZTARTZEA LAGUNDUKO DUTENAK

JARDUERA		10
EREMUA	Baliabide eta udal zerbitzuen sorrera, herritarren bizi pertsonala, profesionala eta familiarra uztartzea lagunduko dutenak.	
IZENBURUA	Ludoteka	
HELBURUA	Bizi pertsonala, laborala eta familiarra uztartzea aurrera eramatea lagunduko duen baliabide bat eskaintzea.	
NORI ZUZENDUA	Gurasoak.	
EGUTEGIA	Urria	
KOORDINATZEN DUEN ENTITATEA	Bortzirietako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitatea.	
PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATEAK	Itunari atxikitutako entitateak.	

JARDUERA		11
EREMUA	Baliabide eta udal zerbitzuen sorrera, herritarren bizi pertsonala, profesionala eta familiarra uztartzea lagunduko dutenak.	
IZENBURUA	Haurtzaindegi zerbitzu bat eskaini burutu beharreko jardueretan	
HELBURUA	Jarduera ezberdinak (formazioa, aisialdia,...) familia bizitzarekin uztartzea erraztuko duen baliabide bat eskaintzea.	
NORI ZUZENDUA	Gurasoak	
EGUTEGIA	2009 urtean zehar	
KOORDINATZEN DUEN ENTITATEA	Bortzirietako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitatea.	
PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATEAK	Itunari atxikitutako entitateak	

BALIABIDE ETA UDAL ZERBITZUEN SORRERA, HERRITARREN BIZI PERTSONALA, PROFESIONALA ETA FAMILIARRA UZTARTZEA LAGUNDUKO DUTENAK

JARDUERA		12
EREMUA	Baliabide eta udal zerbitzuen sorrera, herritarren bizi pertsonala, profesionala eta familiarra uztartzea lagunduko dutenak.	
IZENBURUA	Jubiloteka	
HELBURUA	Bizi pertsonala, laborala eta familiarra uztartzea aurrera eramatea lagunduko duen baliabide bat eskaintzea.	
NORI ZUZENDUA	Adineko pertsonak	
EGUTEGIA	Urria	
KOORDINATZEN DUEN ENTITATEA	Bortzirietako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitatea.	
PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATEAK	Itunari atxikitutako entitateak	